

Zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

MARTIN UGALDE, IZALDEA

Euskaltzaindiain sartu berria dugu

Aspalditxodanik genuen Martin Ugalderekin elkarrizketa bat egiteko gogo, baina beti sortu zaigu presa aundiagoko gairik. Orra or non eldu zaion merezi zuen txanda: Euskaltzain egin baitute Maiatzeko Euskaltzaindiaren Batzarrean. Gure zorionarekin batera bihoazkio galderaren batzuk gure irakurleen izenean.

—Noiz asi zifien idazten?

—Idazten oso goztetandik asia naiz ni; beti izan bait dut onetarako gogo-eragiña. Baiña profesionalki Caracasen asi nintzen, onetarako behar nuen askatasuna an arkitu bait nuen. Urte batzuk ontan aritu eta gero USArako beka bat eman zidaten, eta Chicagoko Northwestern University-n delako Master of Science bi urtetan egin nuen. Geroztik, kultura-aldizkari baten zuzendari eta Caracaso bertako "Andrés Bello" Unibersidadean Opinión Pública eta Comunicación de Masas erakutsi nuen. Orain dela lau urte erriratu nintzan (ez Andoain jaioterrira, bizi naizen Ondarribiara baiña) baiña kanpoan egin ditudan ia ogeita lau urte oietan kazetaritzatik kanpo literatura lanean ere aritua naiz, eta amar liburu argitaratuak baditut; sari batzuk jasoak ere bai. Venezuelako ipui eta reportaje-sari nagusiak beste batzuen artean, eta Madrideko Sésamo Saria ere bai (1962). Gehienak erderaz idatziak, noski; baiña ipuin liburu bat (Itzailleak), bi antzerki (Ama gaxo dago eta Gurpegin aspaldin gertatua) eta Umeentzako kontuak euskeraz argitara ditut.

—Zerk bultzatzen zintuen idaztera?

—Mudnuan arkitzen duen giroaren aurka sentitzen duenak bultzatzen omen du idazlea lanera, eta nere kasuan ere alaxe gertatu dela uste dut. Batzuk gogorke-riaz eta armaz zuzentzeko ahaleginak egiten dituzten bezala, idazleak bere indarrak gizarteko deabruen bide bihurri illunak luma bidez argitzen ahalegintzen da. Idazlearen jomuga nagusia egia da, eta zuzentasuna. Inñoren zer-

ibtzuan idazten duenak beste izenik merezi du.

—Zein lanetan ari zera orain?

—Errian daramatzadan lau urte auetan: Euskal-Erriko ixtoria labur bat (180 orri), elkarrizketa batzuekin liburu bat, Euskal-Erria gai dela nobela bat, bigarren mailakoentzat ikasleentzako liburu bat ("Itxaropenarentzat") eta orain atera berri den Itxaso ur-bazter luzea da erderaz (euskeratzea Dionisio Amundarainek egin dit) bukatu ditut. Elkarrizketekin osatu dudan liburu gertatzen ari naiz oraintxe. Zoritxarrez, atera nahi nituzkean liburu oiek ateratzerik oraindik ez dut ahal izan.

—Zein da kazetaritzaren elbururik nagusia?

—Idazlearen elburua bera: egia eta askatasuna. Ahoz-aho egia eta askatasuna mantso ibili ohi dira giro batzutan; gaiztakeria, malizia eta zampakeria baiña mantsoago; ala, egia eta zuzenbideari ere komunikazio sozialaren bide azkarrak eta zabalak emateko behar gorrian sentitzen da idazlea eta kazetaria. Idazleak eta kazetariak burukalari eta, Oteizak dioen bezala, "konspiradore" behar du izan. Bestela, ez dute izen ori merezi.

—Kazetaritzaren erantzukizun nagusia zein da?

—Kazeta batek erri-iritziaren ixpillu behar du izan, eta ez, askotan gerta ohi den bezala, erri-iritzia aitzakiatzat ar eta onen izenean kazetaren diru eta indar-nagusi direnen asmo, nahi eta gogoak ezartzen dituen. Gezurra esatea ez da egia ez dena esatea bakarrik; baita egia osoa ez es-



tea ere, eta baita aingeruki egia gordetzea ere. Kazetaritza da gizon eta erri-askatasunaren neurririk nabarmenena.

—Nolako da kazetaritzaren egoera?

—Non diozu?... Goi-goitik, bide orokorretik jotzen baduzu, erantzungo nizuke jende askok uste zuenaren aurka, errati eta telebixta bideak gehitzen ari diren neurri berean ari direla kazetaritza eta idaz-bideak zabaltzen eta ugaltzen. Telebixta eta erratia analfabetoak irixteko egin diren bide nagusiak dira (ez dut gainontzekoen-

NON ZER	
● GURE ARTEKO AXERIAK Mendizabal	3 garrenean
● POLITIKA ALA POLEMIKA? Trintxerpe	3 garrenean
● EZKERTARREN GORABEHERAK FRANTZIAN Larresoro	5 garrenean
● ELIZA KULTUR-KOLONIALISTA NAFARROAN? Mujika	6 garrenean
● BUÑUEL-EZ HITZ BI Azkune	7 garrenean

igali oiek emateko gauza ez delako baizik; eta bitartean, zuek bezala, inbernaderoan azia erein eta lurrak goldatu eta urez bustitzen ari zeraten langille miresgarri oiek Zeruko Argia ere irabazi duzuela.

—Zein erritako kazetaritzari deritzazu onena

—Askatasunik aundiena dagoen errian. Askatasun osorik ez dago inñon, askatasunaren mugak mota askotakoak izaten bait dira; eta nik kazetaritza ikasi nuen errian, USAn ere badu askatasunak mugarik franko. Ala ere, eta oraintsu Watergate-ko arazo onek ondo erakutsi duen bezala, Ipar-Amerikada, kazetaritza neurri bezala aritzen badugu, nik barrutik ezagutzen ditudan errietatik idazlearen eta kazetariaren askatasuna gehien zaintzen duena. Badira beste erri batzuk: Suezia, Suiza, Holanda, Canada, Britainia Aundia, esate baterako. Gertuago ez dut ezer ikusten.

—Nola ikusten duzu Euskaltzaindiaren egoera?

—Ara, gure erriari egiazko instituzio gutxi geratzen zaio, eta gutxi oietako bat Euskaltzaindia da. Gaurko Euskaltzaindiak izango ditu ahuleriak, eta egingo ditu utsak; ala ere, auxe da izkuntza arloan euskaldunok dugun instituzio bakarra, eta errespetatzea, zaintzea eta berritzea izan bedi gure egin-kizun nagusia. Mitxelenak behin ongi esan zidan bezala: euskera instituzionalizatzen ez dugun bitartean, edozein aize-bolararen mende egongo da, eta bizi motela izango du. Instituzioa da burua, oroimena, joan dena datorrenari lotuko diona, eta aberastuko duena. Ni instituzionalista bat naiz; konturatu bai naiz gizonak bakarka eta berckiko egiten dituen lanak ez diola, oso bakan batzuk izan ezik, gizarteari ezer uzten.

ERRIALDE

Gure Leihatilatik

GAZTEEN JAIK

Berebiziko jaiak ipini dituzte Ekainaren 17rako Arrua Goiko gazteek.

Goizean: 10,30etan, Gazteen Meza.

11,30etan Aurren jolasak. Asto-lasterka. Gelatxo orkestra.

Arratsaldean: 5etan: Arruako Euskal Dantzaren "Bigarren sari-riketa".

Euskal Erriko bikote sonatuenak parte artuko dute.

Soiñua, txistuarekin joko da. Dantza sariak:

Lehenengoa: 2.500 pezeta eta Arruako gazteen oroigarria.

Bigarrena: 2.000 pezeta eta Zestuako A.K. Munizipalaren trofeoa.

Irugarrena: 1.500 pezeta.

Laugarrena: 1.000 pezeta.

Bosgarrena: 600 pezeta.

Gaiztekoak: 200 pezeta jasoko dituzte.

Abeslariak: Bermeoko Lope eta Billaroko Patxo.

Erromeria: Gelatxo orkestraz.

hen Beterrian piztu da berri berria. Kalera botatako bost langilerekin bat egiteagatik daude beste iru mila kalean. Ordenazaleek kontuak eskatuak dizkiote aurrean omen zebiltzen batzuei. Ez dakigu noiz arte iraungo duen sokatira onek. Ahulenetik eta mehenetik etengo da, noski, soka, Mitxelinen.

UZTAPIDEREN OMENEZ

Oiartzunen egin zaio berriro, ilaren bederatziaren eta amarrean, Uztapideri omenaldi. Lana franko egin du ortarako "Intxitxu" antzeslari taldeak. Zoragarria da ortarako "Ibargain-go" zelaitxoak. Jendea erruz ibili zen bai abeslarietan eta bai bertsolarietan. Gaijartzalea ere apraposa: Juan Mari Lekuona.

Ez da aserretz izango gure txapelduna. Maixutat daukate gure bertsolariak. Ala izan ere.

JOKOAK

"Banco Guipuzcoano" k ere ikasi du jendea nola bereganatu. Ermuan, Zarautzen, Duran- gon, Zestuan eta Logroñon ireki ditu diru-etxe berriak. Aizkolarari jokoak jarri ditu toki oietan denetan, Arria II eta Mindegiarekin, leku oien berri ematearren.

Lau segundoz irabazi zion Arriak Mindegiari Ermuan. Atzo, berriz, ilak 10, Mindegiak irabazi zion Arriari lau segun- doz. 54 ontzako amabina en- bor ebaki behar izaten dituzte. Onela dira atzoko markak:

Enborrak	Arriak	Mindegiak
1	2,25	2,10
2	5,28	5,02
3	8,35	7,50
4	11,02	10,43
5	15,18	13,40
6	18,25	17,35
7	21,25	20,50
8	24,55	24,20
9	26,52	27,17
10	30,25	29,58
11	32,53	33,32
12	37,02	36,58

ARETXA-GURRUTXAGA

Bete beteko apustua izan zen Erandioko Aretxa bigarrenaren eta Nuarboko Gurrutzagaren artekoa. Bizi ikusten zen jendea Azpeitiako zezenplazan. Bizkaitarra atera zen nagusi.

Zazpina minutuko iruna txan- detan jaso behar zuten amaika arruako kubikoa. Irabazlearen saria, amar mila duro zen.

Aurreneko txandan Gurrutxagak 19 aldiz eta Aretxak 20 aldiz jaso zuten. Bigarrenean Gurrutzagak 17 aldiz eta Aretxak 18 aldiz. Irugarrengan biek 18na bider jaso zuten. Guz-

tira: Gurrutzagak 53 aldiz eta Aretxak 55 bider.

IDIDEMAK URDULITZEN

Il onen amarrean amaitu dira Urdulitzen il onen bian asitako ididemak. Or neurtu dira Euskal Erriko idirik indartsue- nak. Auek dira aurrea atera diren bostak:

Lehenengoa: Hernaniko Ota-egi.

Bigarren: Lujako Aurrekoet- xea.

Irugarren: Ordiziako Argoin.

Laugarren: Errezilgo Mendi-ola.

Bosgarren: Etxebarriako Aga- rrixa.

ASTODEMAK AIAN

Bukatu dira Aiako asto-fes- tak, bukatuak izango al dira behintzat, oraingo. Aiako Joxe Mari Aldaien astoa zijoan aurrena. 60 plaza, 7 zinta eta 0,65 metro zeuzkan eginak. Geroztik, igandean ere, ez da azaldu ori autsiko zuen astorik. Txa- peldun zera, beraz.

KANTAUERIKO TXAPEL- KETA

Azpeitiako Udaletxeak eratu du. Ekainaren 21, 23 eta 24an jokatu da. Izen-ematea Ekai- naren amalauko gaueko ama- rrak arte egin ditekete. "Bar Urrestillan" egin zenezake. Bai- ta zenbaki ontara deituz ere: 21-20-62.

Bi mila kiloko "Arri-txuria"- ri eldu beharko diote azaltzen diren idi-pareek. Amazazpi sari dira gutxira. 25.000 pezetako saria da aurrenekoarentzat. Or- tik behera, galgan-galgan, bes- teentzat.

TOKA

Denerako jendea dago. Bada- go tokarako ere. Or jardun zi- ren Lezon eta Irunen tiki-taka. Lezon, aurrena Matxain, biga- rren Santos eta irugarren Pe- dro Erdozia atera ziren. Iru- nen, berriz, Matxain, Pedro Er- dozia eta Irastortza irugarren.

BOLARIAK

Ategorrietan, banakakoetan, Matxain eta Joxe Furundarena geratu ziren aurren eta biga- rren. Binakakoetan, Gereño- Etxebeste aurrena.

Datorren igandean amaitzen da "binakakoan Gipuzkoako Txapelketa". Goiz eta arratsal- de jokatu da, Donostiako Tri- nidade plazan eta Ategorrietan.

MUTIOZABAL

BERTSO BERRIAK OTXOKI

Basarri xar bat ezin billatuz, Emen nabil buru austen. Lengo lekuan buztin lokatza. Besterik ez det ikusten. Arri bakar bat ez dute utzi, Nora eraman dituzten. Katu txar baten miu tristea, Besterik ez da entzuten. Diru zaleak etxegintzako, Ori ere bear zuten.

Basarri xar bat bazan len emen, Taberna ta bolatoki. Altxa gañeko, bassarritarren Atsedan ta jolastoki. Umore ona maite zan txoko, Euskal jatorren batzorki. Bide obetan zetozenentzat, Itzal gozoan egoki. Kaztedi eder baten kabiya. Bere izenez —Otxoki—.

Zumar batzuen itzal gozoan, Etxe txiki biribilla. Ate aundi bat sarrerakota Aurrean berriz petrilla. Gazte gazterik ezagutu nun, Bertako gizon umilla. Gizon alaya, iztun ederra, Bertso lanetan abilla. Aldegin zuan, iñor ezdabill, zabal une bat ixilla.

Oñazez illun nago begira Ezagutu nun lekura Etxea autsi, zuratzak bota Orain lokatza ta ura Zelai ederrak era bat utzi Eremu baten itxura Emengo jolas emengo dantzak Ertortzen zaizkit burura Otxoki xarra, zutzaz oroituz Au biotzaren tristura.

Beko errekan an t'emen goitza Gerezi xarrak loretan Osto berritze alaya dator Piztuz sagasti zarretan Belarra guri aritzen doa Bere soro zelayetan Basarritarik ez da ikusten Iñoz bere barazetan Aldegin zuten zeukaten dana Betiko utzirik bertan.

Beti bezela txara zokoan Kantuz ari da txoriya Inguru xamar egifa baitu Bere maitasun kabiya Kirkirrak ere asper ezifiak Gau t'egun oyen ariya Zelai oyetan beyen aurretik Zorontsu ta kantariya Ez du geyago iñork entzungo Otxoki bertsolariya.

Jaso zanetik orain artean Urte luzien buruan Zen-bat pameli igaroa dan Etxe xar orren barruan Zarrak aldegin orduko, beste Gazte bat bazan onduan Beti bete zapuzten ez dan Kabi xar baten moduan Bere betiko eginkizuna Bukatua du munduan.

Guraso xarrak beren bizitza Barru ortan zuten pasa Zelai oyetan egin zuten lan Atari ontan jolasa Beren negar ta pozen ondoren Or eman azken arnasa Ainbeste maite zuten kabiya Orain eremu lokatza Txiki beartsu askoren bizkar Aberasten aberatsa.

Zaldi txarraren ondoan ortik Donostira pasatzian Batean batzun itz jariyua Entzuten nuan etxian Igandeari lagunduz, or Beti astelen goizian Gafi obetako aitona xarrak Aritzen ziran musian Oñaze dauka nere biotzak Etxerik ez arkitzian.

Bere aurretik ninjoanien Neretzat sartu bearra Agur egin ta eskatzen niyon Baso erdi bat naparra Tabernan zegon neskatx gaztea Alai, jostari xamarra. Beti bazuan danentzat arek Itza eta irriparra Garai ayetan zeñen maitea Genduan Otxoki xarra.


Etxe biribill txiki ta xarra Itzal gozoan jarrita Amezgañ-peko txabal unean Taberna txulo pollita Euskal kutsua gañezka zegon Lege zarrari eutsita Bertsolariyak maitea zuten Egiten zuten bisita Bertako seme bezela ziran Bordaxar eta txirrita.

Zeñen pameli zoragarriya Gazte bikafiak benetan Gizarterako jayauk ziran Prestu edozer lanetan Danok salbean alkar artuta Negu igande jayetan Eskupeta ta txakurrarekin Zoratzen olo-gorretan Amaika ber ta eztanda gasto Egifiak, malkar obetan.

Betiko galdu ainbat oroitzen Otxoki-ko basarriya Bere onetik jasoko dute Bizitz askoko berriya Jendea berriz eltxuen gixa Bada nundik ekarriya Diru zaleak sal-bentan jarri Digute euskal erriya Erdaldunentzat ez dator gaizki Euskaldunen izerdia.

Lur gañetikan kendu zaituzte Galdu da zure itzala Badakit zure semeak triste lges egifiak dirala Agur Otxoki, zuretzako det Gaurko nere eskeintz apala Etxez betetzen badute ere Amezgañ-peko zabala Betso txar obek lezan, jakin dezaten, izan zifiala.

ATAÑO (Ondarrabi)



ANTZERKI SARIA

Oiartzungo "Intxitxu" antzerki taldeak atera du Tolosan aurreneko saria. 25.000 pezeta eta plaka baten jabe egin da "Intxitxu".

"Accesit" bana izan dute Iruñeko "Anaitasuna" eta Gazteizko "La Farandula" k.

Mahaiburuko: Antonio Maria Labaien, Edelmira Ferrero, Jose Luis Angulo, Jabier Aranburu, Julio Eyara eta Estanislao Urruzola izan dira.

Poztekoa da sari au Euskal antzeslariak ateratzea. Zorionak, beraz, "Intxitxu" taldeari.

LANGILEAK KALEAN

Goierriko sua itzali baino le-

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria 10-Urrut. 417751-Etxekoa. 422700 - DONOSTIA

TRANSPORTES

azkar

ERAMAN-EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:

Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:


Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA

Telefonoak: 450313 eta 459723

Aptdo. 1381

Aptdo. 1381



LOTARAKO-GELAK
hilean 750 pezetarekin

AMUEBLADORA

COMERCIAL HISPANIA

lorik egin gabe dago...

...zuk lo egin dezazun.

Moraza, 3 eta 14-San Marzial, 12

DONOSTIA

IRUN

askoz merkeago eskura ordainduz

GARRAIOA DEBALDE PROBINTZI BARRUAN

LA CASA DEL CAFE

Juan Jirondo

San Marzial, 19 - Urrut. 413801

Donostia

LIBURUAK

HAURGINTZA MINETAN

Baina gutxi axola zaigu nongo erantzunkizuna legearen aurrean du-haurgintza luzea eta mingarria izan gitaratu ahal izan du «Itxaropena» irarkolan eta «Etor» deiturapean Mikel Zaratek «Haurgintza Minetan» bere liburua. Egileak berak argitaratzen duela esan dugu, azalak irrik bait da liburuaren jabea eta haurtegiaren erdi duen. Jaio da haurra eta biziro poztu: gara jaiotza honekin. Guk dakiguna hauxe da: bait zituen aukeran erditzeko. Izan ere ez da bat ere harrizteko nobela honen atzetik bat baino gehiago ibiltzea. Ez dakit irakurlea jabetuko den ala ez, baina liburu hau ere «Itsasoak ez du Esperantzarik» bezala 1972an Euskaltzaindiak eraturako Sarira presentatu zen nobela bat da. Presentatua ez ezik saritua ere bai, nahiz eta mahaiburuko, abeslari bat, agure xahar bat eta banketxe gizon bat izan.

Dena den sona haundiko nobela dugu. Hoberik egin bazitekeen ere, «Txomin Agirre Sarira» azaldu zen onena. Mahaiburukoek abestiaz, ajeaz eta diruaz hainbat, literaturaz ere bai bait dakite.

Ezaguna da Mikel, Z. ARGIAko irakurleentzat. Saria irabazi bezain azkar egin bait genion elkarrizketa. Irakurri erraza da Mikelen liburu hau eta irudipean eta mozorropean gauza asko adierazten dituena.

Baina Enrike Aierbereren jokabideak biziro harritu gaitu. Oraintxe bai esan dezakegula Salamankariarekin: «ETOR-en» izenaz eta markaz jabetu zarela».

GERO rengandki oso berezia eta desberdina den zerbait eskainiko ziguela uste genuen: guk. Izan ere bidea hain galdurik zebilen argitaldarien salbatzailetzat jarri bait digu sarritan bere burua! Baina dirudienez orain arte argitaratu diren guztiak onartu ditu eta sortaren neurria, azalak, egitura, hizki-moldeak, papera, h-ak eta abar; dena gustatu zaio.



Liburu-azokatan ezin azaldu dituen lehengo hogeitaz liburuak ere eskaintzen ditu.

«ETOR-en» zerbait argitara dugu: merezi genuke adieraz dakigun nor gelditu den guk eskaini genituen idazlanekin» galdetzen zuen «itsas-lapurren» ezaugarrien marrazkilariek. Badaki, beraz, Ap. 193ra eskatu dezakeela. Guk ez dakiguna zera da: hortarako Mensajerori ala GEROrri erosi behar dizkion E. Aierbek.

Dena den Mikel Zarateren nobela interesgarria atera berria du. Irakurtzea merezi duen liburu argitaratu du. Beste edozein argitaldarekin ere pozik aterako zuen liburu, noski.

MIKEL ZARATE - HAURGINTZA MINETAN - ETOR.

Irastortza

ZINE

Buñuelez hitz bi

Duela hilabete inguru, Buñuelen azken pelikula ikusteko egokiera izan nuen. «La charme discret de la bourgeoisie» deritza lan horri («Burgesiaren ilura zuhurra», euskaraz nolabait esateko), eta Hollywood-ko Oscar batez saritua da.

Teruelgo zuzendari honen beste bi film bakarrik ezagutzen ditut; «Bera» («El» —1953— eta «Nazarin» —1959—).

Eala ere, hiru lanei ikusi dieran loturak, lerro hauek betetzera bultzatu nau.

Gizon baten barne izkutuak dastatzeko hiru pelikula ez dela aski (guttienez hogeita hamar eginak bait ditu 1928an hasi zenean), eta hemen esandakoak Buñuelez ditudan neure irizkiak direla argi dezadan aurrez.

Calanda-ko zinegile honek, diru irabaztea ez du jomuga. Ez du artista famaturik bere inguruan erabiliko; bere filmak ez dira propaganda handirik egingo (zensusarak egingo dio behar bada handienetakoa, bere lanik gehienak debekatuz gizon honi begira irrikitzen gauzkalako); denbora pasa doan ikuslearentzat ez du jakirik prestatuko. Ez.

Helburu jakin batzuek eragiten dute, alderdi politiko batetako langile bailitza. Zerbait ideia eta egitura hedatu nahi lituzke, edo, hobeto esan, beste zerbait eratsi eta lurperatu.

Lan honetarako, dirudunen fari-saikeria erakusten saiatzen zaigu. Itxura eta aurreiritzia ugari duen agintari eta aberats jendearen zurikeria porrokatu nahi du. «Bera» filmean, elizako aldaeren ikusiko dugu Ostegun Santu egunez herriko jauntxo bat, behartsuei oinak garbitzeko lanetan. Baina, elizkizunaren ondoren, bere etxeko zerbitzari bat agudo uzten du lanik gabe, huskeria bat gora beheara.

Beste emakume aberats bati berriz, ez zaio bururatu ere egiten gizon elizkoi horrek bere emaztea zigortzen duenik, nahiz bere alabak (emazte errukarriak alegia) adi arazi. Izan ere, hain da gizon ona itxuraz!

Buñuelen azken pelikulan ere, akats horixe dario burgesiari: Vietnam-en gudari amerikanoek ia erabat marihuana erretzaile zirela, eta soineko urratzen hasten dira, burges horietzek drogarik kaltegarrienak zabaltzen buru-belarri jardunagatik. Pasarte honi, beste zerbait legez, umorea ere ezartzen dio zuzendariak, bere ironia nabarmenduaz. Baten ustez, egazkin amerikanoek beren lagunei bonbak jaurtikitzaren errudun, marihuana zen. Beste batekiko berriz, amerikatarren lagunak hiltzeko ere, arrazoiak izango zituzten.

Burgesiaren axalkeria eta itxurazalekeria garbi ikusten da, gotzaiarekin dituzten lehen harremanetan ere.

Hasieran kalera botatzen dute supidarik gabe, langile jantziz hor-

nitua dakusatelako. Baina, bere gotzai-sotana, gurutze eta abarrez jantzirik birrikustean, erreberentzia, barkazio eskatze eta monseñore hotsa besterik ez darite.

Aberriaren «grandeur» edo «grandeza» (erdal hitzez esan beharko dugu. Euskaldunok zorionez ala txarrez ez dugu chauvinkeria horren hitz adierazgarriak egokitu. Chauvinkeria hori bera egokitu ez dugulako agian) mitioz burgesek (diruz osaturik daudenean) duten zaletasuna garbi agertzen zaigu. Nork beraren aberriaren «grandeur»-a atsegin zaie ordea; ez besteririk. Gainontzekoen «grandeur»-a zakurraren salara bidaltzeko aitzakia bat eta indarkeria aski dituzte.

Agintarien etikarik eza eta, diplomazia bide, dirudunek egiten dituzten bidegabekeriak ere nabarmen izan dira Buñuelek Droga-merkatariak, adibidez, telefonoz egindako elkarrizketa bat gora beheara, espetxetik aterako ditu ministroak.

Baina, alde guzietatik ustel usait hartzen zaion jauntxo klase honen, badu indarrik behartsuak zapaltzen jarraitzeko. Iku bestela neska gerrilleraren amateurismoa, eta enbajadorearen ezin hobeto taiututako estrategia. Hemen ere, umoretsu jokatzeko du aragoitarrak, enbajadore drogalaria gauza irringarriak esan araziaz; Bera ere (enbajadorea alegia) sozialista litzatekeela, sozialistek Jaungoikoagan sinetsiko baldin balute: Funtsean, ideia berdinak dituztela (enbajadore eta guerrillerak), Freuden interpretazioa izan ezik, e.a.

Eta orain, jauzi tipi bat eginaz, Buñuelen beste alderdi batez mintzatu nahi nintzake; zuzendari honengan ilun xamar dakusadan zerbait. Gizon emakumeek elkarrenganako duten maitasunaz.

Maitasuneko harreman hauetan (harreman hitza zentzu zabalean harturik), gizon akatsdunak agertzen zaizkigu ia beti: «Nazarin» pelikulan enanitoa; «Bera» filmean, berekoitasunez erotutako gizona; «Viridiana»-n itsua omen, e.a.

Baina, besteak beste, Buñuelen lanetako zatirik interesgarrienetakoa, Elizaz (erakundeaz batik bat) egiten duen kritika da. Kanpotik egindako kritika dela, diodan bidenabar.

Eliza erakunde ordezkariek (apaizak gehienetan) agintari eta dirudunekin agertzen zaizkigu. Mahai baten inguruan eser arazten ditu askotan, jaki goxo eta ugariak aurrean dituztelarik. Handiki artean erabiltzen ditu apaizak, eta ez behartsuen hantza eta etxe zikinetan. Pozik dabilta gainera elizgizonak giro horretan. Sakela betez gero, ez dute buruhausterik nahi. Indardunen burgabekerie ez diote buruz buru egiten.

Hertzain batek, nekazari arlotea (ondotik igarotzean txapelik kendu

ez diolako) haserrez eta gaizki-esaka hartzen duenean, apaiz dotore eta apainak herejetzat jotzen du gizarajo errugabea.

Nekazariaren alde ere egiten du beste apaiz batek (Nazarinek), baina apaiz gazte hau, ameslari eta Quijote antzeko azaltzen zaigu, errealtatean oinarritu gabe gauzak aldatzea nahi duelako.

Beste elizgizonek, errealtatea ezagutzen dutenak, jauntxoaren alde egiten dute, menperatuen bizkar goxo-goxo biziak, eta egoerari nahiz arazoei lehenen, dauden daudenean irau arazten salatuz.

Maitasunaz zenbait pentsakizun sakon norbaitek aurkezten duenean, «okela goxoa du, benetan kapoi honek» erantzungo du apaizak, platerakoari moko eginaz.

Beste batetan, emakume mutil koskor batekin frailetegitara etortzekoan, zeinen seme ote da? galderari, «santuen bizitza irakurtzen jarraitu zaitez» ihardesten du abatak.

Aitorleak ere, huskeriatzat jotzen du gizon batek (handiki elizkoi batek) bere emaztea zigortzea, baina jotzaile horretzek aitorleari lepotik heldu eta itozorian eduki ondoren (ez lehenago), «erotua dago» esanaz baietsi du azkenean emazte gajoaren larritasuna.

Orain artekoa, zapalketak salatzeke, eskuak tolestaturik pasiboki lasai egotea litzateke. Baina azkeneko pelikulan, besterik ere egiten du hango gotzai langile-itxurakoak.

Buñuelen monseñorea, umezurtz izandakoa da. Umezurtz aberatsa. Haren gurasoak pozoiz garbitu zituen norbaitek.

Halako batetan, aitona bat hiltzeaz dagoela eta, apaiz eske inguratu zaio emakume zahar bat; Jesus maite ez duen amonaxo bat.

—Nola daiteke? —erasotzen dio xamurki apezpikuak—. Jesus hain ona izan eta zuk Jesus maite ez? Zergatik?

—Geroxeago erantzungo dizut. Goazen lehenbai lehen agurearengana, nekez irits ez gaitezen.

Senar-emazteak pozoiz hil zituela aitortzen dio hillozorian dagoenak gotzaiari. Nagusi zituela (umezurtzaren gurasoak alegia), eta oso txarrak gainera.

Jasan ezinezko zigorkadak hartzen zituela, eta ezinbestez, benez garbitu zituela.

Gotzaiak ezitiki hitzegiten dio aitoniari, baina... (hutsune hau, zensuraren guraizeari zor zaio).

Apezpikuak tiroz hiltzen omen du aitona, Europako irratia bati entzun diodanez. Espainiako zensurak leporaino egina omen daduka Buñuel eta ez omen du pelikularik Espainian egingo.

Amonatxoaren erantzunaz, ez dakit ezer.

INAKI AZKUNE

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA

zure etxea USURBILEN

sarrera

50.000 pezetan


ordainketarako erreztasun osoz

- ATXEGA-ALDE
- Gipuzkoan urigintza egokienean
- Lareun etxe bizitza berriak
- Orain duzu etxe bizitza egokiena aukeratzeko garaia.
- Bai astelen eta ostiraletan arratsaldeko 4-6,30 an, Etxebeste Kalean, 5-2.º
- Ikus maketak aurrekita kutxa probintzialaren etxean Donostiako ofizinetan ere edozein egunetan bear duzun argitasun edo informaziorik jaso zenezake.

CSC CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA
AUZO-EGINTZA

Prim Kalean, 14-2 garrinean
Urrutizkifia 426906-429942
DONOSTIA

C. A. P. n.º 106.527/3



MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGI
Zatoz gugana anuntzio honekin
eta KANARIAS-en baino merkeago
erosiko duzu zure eriojua

Matxin Arzu, 1

ONDARRABI



YOGUR
GURELESA
GO GOZKOENA



VIII Umeen Euskal Jaia Eibarren zenbait iritzi

● Bi asteren buruan eratu da Eibarren 1965 urte gerotik eratu ohi den Umeen Euskal Jaia. Lehen urte hartan egun bakarreko jaia izan zen, eta egun hartatik darraikio, nonbait, izena, nahiz eta urte urte programa hedatzen, sakontzen eta luzatzen ari izan.

● Aurten honetan bost hitzaldi ziren programaturik: Haur Heziketa (Andu Lertxundi), Haur psikologiak (Mikel Urkola), Mogel Ikastolaz jendaurreko elkarrizketa (irakasle, guraso eta arduradun), Euskal Izendegia (J.M. Satrustegi) eta Arte Sorretaz (J.M. Larramendi). Lehen biak debekatua izan ziren. Gai horietako hirutan jende dexente bildu zen, ikastolari buruzko elkarrizketan batipat.

Hitzaldiok euskaraz izan ziren, noski, eta honetaz zertxobait esan beharra dago, bost hitzaldi hoiak aurretik beste bi gaztelaniaz egin bait ziren elkarre beretan, dibulgazio gisa edo, euskaraz ez dakitenentzat bereziki burutuak: Euskararen problematika egun (Ruiz Urrestarazu) eta Euskal Herriko Kondaira (Carlos Caballero). Egia esan, zenbait besterik pentsa badezake ere, bi hitzaldi hauk erdaraz izan arren, ondorengo euskarazkoetan baino jende gutiago bildu zen, hartako erdi inguru euskarazkoetara joan ohi garenok ginelara, gainera.

Beraz, behingoa, bilinguismo-zaleak, bi hizkuntzako hitzaldiak nahi dituztenak eta euskarazko hitzaldietan laburpentxoren bat gaztelaniaz egin behar lizatekeela esaten dutenak, nahiko nabarmen azaldu zaizkigu. Hau da, bost axola zaiela gure kinka larria, eta izorraztaile eta "enkordiatzaile" hutsak direla, alegia. Argi bedi, ba, nori eta nola erantzun behar diogun.

● Uztapideren Omenaldiak eta Deba bailadako Ikastolako haurrek agerturiko antzerki saioek guztiz harrera ona izan dute. Beste horrenbeste esan dezakegu Nafarroa: lau urteorok deritzan filmaz eta, maila apalago batez, KOSKA taldearen ihardunaz. Ez zuen batere harrera onik izan, aitzitik, Donostiako giñolak, egunak, orduak eta eguraldiak ez zion ere, agian, lagundu.

● Debako Arte Lantokien Erakusketak zenbait ausmarketa eta buru tapeneta eramanen gaitu. Lau egunen buruan jenderik benetan guti abiatu da erakusketaren barrena. Bada tokiari berari dagokien zenbait atxakia, hots, sarrera ez erosoegia, bertara propio joan beharra, kafetegi batetik nahi eta nahi ez iragan beharra... Programa jorik ere badu zer ikusirik, agian saio gehiegi gertatu bait da egun beretan.

Baina, behar bada, arrazoi psikologikoak dirateke gehien bat kontutan hartu beharrezkoak, jendeak "artistei" beldur diela bait dirudi askotan. Artea "tabu" da, eta ardegitzen ari dena ero samarra. Era honetako iritzi soilen barrena, jendea ez da batere erakusketara zale, eta ikustera ausartzen dena azkar asko ematen dio azalezko begirada kozkor bat, bai eta lehen bait lehen gelatik hanka egin, artearen moztarok atzetik jarraituko balio bezala.

Honetaz badago zer azter eta zer pentsa. Artea herriratu behar badugu baten batek eman beharko du lehen pausoa, eta, gure ustetan, hauzi honetaz jabetzen denari dagokio eman, "artistari" alegia.

Diogun honetaz, dagoeneko badela gai honi buruz elkarrizketa bizi bat moldatzeko asmorik Eibarren bertan, Jose Mari Larramendi, Koldo Azpiazu, Juan San Martin eta beste zenbait tartean izanen direla.

● Alderantziz gertatu da Euskal Liburu eta Diskuren Azokaz, edota, hobeto esan, Eibarko liburutegi baten ardurapean eratu zen liburu eta diskuren salmentaz, inork espero ez zuen harrera ona izan bait zuen.

Euskarazko liburuak batipat bertan azaldu zirenak, antolatzaileek nahi eta eskatu bezala, nahiz gero, banatzaileak erdarazko multzo bat ere bidali (ez onenak, bai garestienak). Dena den, han ziren euskal editorialik ezagunenak, bai liburuak bai eta aldizkariak ere.

Bi egunen buruan —larunbat iluntzean eta igande eguerdian—, sei ordu inguru iraun zuen irekirik azokak, eta honen denbora gutitan hirurehun bat liburu eta disku saldu zen. Beraz, harrera nahiko ona, hurren batetan kontutan hartzea merezi duena, urtean behin ez ezik, bai eta sarriago urteren buruan ere.

● Aipamen berezia merezi du larunbat gauean (ekainaren 2an) Astelena pelotalekuan eratu zen kanta, dantza eta txalaparta ihardunak. Programan, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Pello eta Pantxoak, Jose Mari Zabala, Mikel Laboa, Arze anaiek eta Zubietako Zantantzarrak. Programak merezi zuen, antza, eta bi mila eta bostehun inguru entzule bildu ginen gau hartan, kanta saio batetan Eibarren inoiz ez bezala, agian. Eibartarrak ez ezik, Urola, Goierri, itsas-bazter, Bilbao, Gasteiz eta beste zenbait tokitatik etorri zen jende pila bat. Entzule asko eta asko zutik, ez bait zen guztiontzat eserlekurik.

Era honetako jaialdiek behar dute jadanik patxadazko azterketa sakon bat, ordua da planteamendu bat egiteko, edota orain arte baliagarri izan diren ikusmoldeak berriro aztertzeko. Zeren, penagarri bada ere, entzule asko eta asko asperturik samar atera zen pelotalekutik, eta hau ez diot esan esatearren, amaika entzuleri jasotakoak adiarazi nahirik baino. Egia esan, ni neuz gustora egon nintzen azkenegia (amaitu baino hamar minuto lehenago arte, hobeto esan), baina, antolatzaile nintzelarik, erabat larrizten ninduten inguruan ikusten nituen aurpegi luzeak, amai gabeko hasperenek eta geldirik egon ezinako ipurdiek. Izan ere, lau orduko jaialdia ez da txantxetako gauza, eta gan erdiko ordu bitan Jose Mari Zabalaren zarata eta abarra entzuteak (gero jakin, ordea, zer zen!) baditu bereak.

Baina, noski, ez zen hori izan huts bakarra, agian jaialdiaren eraketa guztia edo atzez aurrera egina bailitzan azaldu bait zen. Egia da, bai, "artistek" (nolabait esan behar) marratu behar dutela hildoa,



entzuleek jarrai dezaten, eta ez artistek jendearen gustotxoari amore eman. Hala ere gauzak ez dirateke beti zirt edo zart, ez nik, behintzat, horrela uste.

Arze anaiek ekin zioten saioari, txalaparta ihardunaldi batez. Jendeak ondo asko hartu zuen lehen ekinaldi hura, txalaparta hotsa hunkigarri gertatzen bait da zenbait une berezitan. Benito Lertxundi atara zen ondoren, gaueko lehen kantari bezala, eta heronek jaso zuen, behar bada, txalorik gehiena, nahiz eta bere laupabost kanta erabat ulergaitz gertatu. Komeniko lizateke puntu hau aztertu. Inork ez du ukatzen, jakina, mugaz handiko —Zuberoako batipat— kanta zaharren balio eta jatortasuna. Hala ere, badirudi mina bat aurkitu dugula, eta pozaren pozez ase ezinik gabiltzala. Dena den, Benitok ondo amaitzen jakin zuen, entzuleek errepikatzen zuten herri kanta ezagun batez.

Pello eta Pantxoak azaldu zitzaizkigun gero. Orioko semeari tutik ez ulertzeak eta lapurtarrei guztia, ordea, baditu ere bereak. Bikote hau da behar bada, ipar aldeko kantarien artean ezagunena, eta nahiko garbi agertu zituen bere arrakastaren arrazoiak. Pello eta Pantxoak bikote alai osatzen dute, finak dira oso kantatan (asko landu dute duela bi urte Bergaran entzun genienetik) eta kanten esangura eta mamia erabat ulertzen zaielarik, guztiz atseginak dira entzule xume eta ez hain xumearentzat. Kanta laburrak eta biziak, bestalde, jendeari zer zaion atsegin badakitelarik, antza.

Kanta saio honen erdian, atsedendaldia aurretik, Zubietako "Zantantzarrak" ihardun zuen. "Yoareek" pelotaleku baten barruan ateratzen duten hotsa, eta argi-jokoekin horma zurietan zehar agertarazi ziren irudi eta itzalak benetan ikusgarri iruditu zitzaizkigun. Horrez gainera, zubietarrak gizon portatu ziren, eta jaialdiaren barruan ez ezik, iluntzean kalez kale eta berdin biharumunean, jo eta ke egin zuten lana.

Baina, jaialdiak jarraituz, Xabier Lete genuen bigarren partean. Xabier Lete... zera, Xabierrek agertzearekin batera bereganatzen du entzulea. Gainera, Xabierrek grazia aparta du —sarri pentsatu izan dut kantatuko ez balu ere berdin izanen lizatekeela—, entzuleari mintzo zaio aurrez aurre, kontu kontari ari zaio, eta edozeinbat azalpen emateko ere prest egon ohi da. Gainera, Xabierrek badaki —ikasi egin du— beste askok oraindik ez dakiena, hots, lehen txistua entzun bezain laster erretiratzeko. Jendaurrean sarri asko ari den adiskide baten esaten zigunez orain hurrengo, jendaurrean azaltzen den apalik ez dago, eta denboraz erretiratzeko ikastea ez da, itxuraz, batere erraz. Bestalde, Xabierrek kanta ohi dituen kantak oso hautatuak dira, oso galbae hestutan pasataraizak. Lizardiren zenbait poemaren interpretazioa erabateko aziertoa delakoan gaude.

Ondoren, Mikel Laboa eta Jose Mari Zabala bikoteari tokatu zitzaion azkenaldeko parte. Eta tokatu diogu, jaialdia luzatu ahala astuntzen bait zihotan, eta berei ere ez zien, agian, mesede handirik egin azkenegoz aritu beharrik. Dena den, hasieran polito... Zabalak bestelako bizitasun bat ematen bait zion bere ekipoz Mikel Laboaren kantari. Hala ere, lehen bizpahiru kantaren ondoren hasi zen jendea nora ezean, hizketan, mugitzen, txisturen bat edo beste ere, hiru orduen ondoren Laboaren kanta mota hotza ez bait zen, behar bada, aukerakoena, ez eta hautatu, agian, kantarik bizienak, ezagunenak edota eraginkorrenak.

Saio hau bukatu bezain laster izan zen Arze

anaien bigarren txalaparta iharduna. Lehenbizikoa baino askoz ere luzeago iruditu zitzaigun, eta jendea, egian esan, nazkatu egin zen. Amaitzeko, berriz, Zabalaren musika hots hutsa, batere azalpenik gabe, entzulerik gehiena ezertaz ohartu ez ezik, erabat go-gaiturik ateratzen zelarik.

Ez, jendea ez zen guztiz gustora atera Astelene-tik. Lertxundirekin batera kantatzen hasi zen jendea, dutxa fresku bat hartu izan balu bezala ateratzen kalera gaueko ordu bitan. Batek esan zuenez, ez atxakia gisa bere ustetan arrazoitsu baizik, "goxo goxo lo nahi duenak ikus dezala telebista...". Ez dakit, behar bada erreflesio merkeegia deritza honi...

Kanta jaialdi luzeekin gabiltza aspaldi honetan. Lerro hank idazten ari garela ere nahiko luzea eratzeko da Oiarzunen, eta askoz ere luzeago oraindik Ataunen egiteko dena (hemen badira beste arrazoi edota iritzi batzuk, beste plan batetan alegia). Horretan diharduenak jakinen du zertan diharduen. Hatik, nik neuk beldur naiz zaleak direnak aspertuko ez ote ditugun, eta erdi zaleak direnak, aldiz, behin betiko nazkatu.

Egia dena zera da, Eibarren bati eta besteri galdetuz, inork ez duela esan jaialdi oso ona izan zenik: "Ondo... bai, ondo...". Baina, OSO ONDO inork gutik. Eta hau, penagarri eta aztergarri dateke, zeren, "materialik" ez zen behintzat falta.

● Biharamunean Haurren Eguna, VIII Umeen Euskal Jaia, alegia. Mila eta bostehun dantzari eta txistulari bildu ziren Eibarren. Ohizko kalejirak, ibilaldiak, karrozak, dantza saioak etab. etab. Batek baino gehiagok esan duenez, nahiko jai "desorganizatua" izan zen. Nonbait, haurrak eratzailak baino gehiago ziren.

Zer esanik ez arratsaldean Ipuruko Foballa Zelaian hogeita hamabost taldeok bildu zirenean. Taldeek txandaka dantza egin behar izan zutelarik, gaintzakoek nahi zutena eta gehiago egin zuten. Bartzuk zuloxoak egiten aritu ziren, besteak tontorxoak, zenbaitek belarra moztzen, elkar jotzen, atximurka, antxintxiketan, porteriara igo nahiz, lurtean etzanda, sudurrean barrena muskira bila etab. etab. Behar bada, guzti hau ez zen programan ageri, hala ere, umeentzat behintzat egiazko jaia izan zen. Ez zen, ez, ordenarik izan, baina... ez ote da ba hori ere pedagogia berria?

Hurren arte.

PASAIA

EUSKALERRIKO VII ARGAZKI LEHIAKETA

OINARRIAK

Norentzat: Euskalerriko zazpi probintziakotako batean jaio ala bizi denarentzat.

Era: Zuri beltzean.

Gaia: Edozein.

Neurtia: Luze-zabalean 1.200 cm.², ehuneko bost-taren gora behearakin.

Agertzeko era: Ertzik gabe, baina sendotuta. Lan bakoitzaren atzean, argazkiaren izena eta lehikidearen izen abizenak eta zuzenbidea adieraziko dira.

Zenbat: Nahi hainbat, baina Euskalerriko probintzi arteko lehiaketetan erakutsi gabeak eta nazio mailan edo nazio artekotan saritu gabekoak.

Nora eta nola bidali: Zuzenbide honetara: Foto-Cine-Club Pasajes, Zumalacárregui, 15-bajo. Pasajes (Guipúzcoa).

Txukun bilduak eta gastu guztiak bidaltzen dituenaren gain direlarik.

Epea: 1973 garenge ekainaren 15-arte.

Epai mahaia: Cataluña argazki elkarteak izendatuko du eta haren erabakia aldatu ezinezkoa izango da.

Sariak:

- 1 go. Urrez bordatutako txapela eta 7.000 pezeta.
- 2 garren. Kopa eta 5.000 pezeta.
- 3 garren. Kopa eta 3.000 pezeta.
- 4 garren. Kopa.
- 5 garren. Kopa.
- 6 garren. Kopa.
- 7 garren. Kopa.

Pasaiko Lehikideen lanik onontzat sariak:

- 1 go. Kopa eta 1.000 pezeta.
- 2 garren. Kopa.

Erabakia: Lehikide bakoitzari zuzenki adieraziko zaio eta irriti eta aldizkarietan azalduko da.

Erakusketak: Erakusketarako gai diren lanak uztailaren 6 tik 15 arte Donosti Aurreziki Kutxaren Pasai Antxoko Aretoan azalduko dira. Zabaldurik: Aste egunez, arratsaldeko 7-retatik 9-tara. Jai egunez, eguerdiko 11-tatik 1-tara eta arratsaldeko 6-retatik 9-tara.

Sari Banaketa: Lehen aipatutako aretoan uztailaren 14an, larunbatez, arratsaldeko zortziretan. Berau, jendaurrean izango da, eta Epai mahaikoan iritziak entzun ondoren elkarrizketa bat sortuko da.

Lanen zerrenda: Lehikide guzietan bidaliko zaie. Lanen itzulketak: Erakusketak amaitu eta, lanak jaso ziran era berean bildurik, itzuliko dira hamabost egunen barruan.

Lanen jabe: Eratzailak, lehen hiru sarien irabazleen lanen jabe egingo dira.

Oharrak:

- Eratzailak bere erruz ez diran ondamentan ez dute erantzukizunik izango.
- Hemen aipatzen ez den arazoren bat sortuko balitz, eratzailak erabakiko dute, eta erabaki hau ontzat eman beharko da.
- Lehiaketa hontara agertzeak, bertan jarritako ohinarriak onartzen direla esan nahi du.

ELIZAREN BERRI

DIEU EXISTE-T-IL? NON...
JAINKOA BA AHAL DA? EZ...

Titulu horrekin, liburu batetan, 20-ren bat ateoren aitortpenak jaso ditu Christian Chabanis frantziar intelektuala.

Autore berak, beste liburu batetan, fededun beste sail baten aitortpenak azalduko dituela agindu du.

Oraingo honetan mintzo direnek, denek, ateotzat ematen dute beren burua. Denetarik dago: zientifiko, politiko, idazle, erdi-mailako...

Ez da ene asmoa, guzti horien arrazoinketaren sintesiarik ematea. Lan gehiegi eskatuko lidake horrek. Puntu bat bakar bakarrik.

Badirudi, ateoia esatean, denak zaku berean sartzen ahal genituzkeela. Hain zuzen, xalo-xalo mintzo ohi gara, alde batetik ateoia, bestetik fededuna emanaz.

Egia, alabaina, ez da hain ximplea. Iburu honetako erantzun batzuetan hartuko ditut lekuko.

—oOo—

Jacques Duclos-entzat, Jainkoa zapaltzaileek eta mixeriak asma-turikoa da.

Francois Jacob biologialariarentzat erlijioa ez omen da behinere arazo edo prolema edo galdekizun izan.

Autore biok biribilki mintzo dira. Ateismoa kezka eta prolema-rik gabeko bizikera dute. Beste arazoetan borrokan bizi direlarik ere, beste honetan inongo buru-husterik ez.

—oOo—

Alfred Grosse-ren kasua zerbaiz desberdina da. Politika irakasle dugu. Kristau jokabideari erasotzen dio; batez ere, apaizenari. Bera ez-kertiar delarik, harritu egiten da, halako edo bestelako apaiz nahiz kristau sozial arazoetan nahasteaz, ebanjelioa predikatu ordez. "...Izan ere, federa igotzea benetan igotzea baldin bada, ez bakarrik goi egia batetara, goi bizikerara baizik, ebanjelioa pasarte gehienek diotenez; hori hala baldin bada, errudun jotzen dut gaurko jendea bizi-iturri den egia horretara irekitzen ez saiatzea". Eta aurrera: "Agerpena (Errebelazioa) —Kristoren jaiotze, heriotze eta bizitza—, betiereko heriotzerik ez delakoa...; giza-errealitatez gaineko beste zerbaitetan sineste hori, ez ote da, laguntza orde, oztopo bat askapen lanean?". Ageri denez, Jainkoaz eta sinesteaz eta ebanjelizatzeaz, bere gisako ikusmodua du.

Isabelle Meslin-en jarrera ere oso desberdina da. Aitortzen duenez, berak ez du inongo metafisika kezkarik, ez eta federik, nahiz ez den erlijio sensibilitaterik gabea. Halere, uste du, fedeak besteren alde lan gehiago egiteko indarra ematen ahal liokela: "Sarritan naiz damu besteren alde lan gehiago ez egiteaz; atxikitzen naitzaion bigarren mailako hainbat gauzari utzi ezinaz damu naiz. Agian, fedeak ematen ahal lidake horretarako indarrik: ez dut baztarten". Fedea, beraz, teoriako prolema argitzeko ez, baina gauza praktikorako nahi luke. Dena den, galdetzekoa izanen litzake hori ote den kristau fedearen mami guztia.

Jean Rostand-ek honela dio: "gogoanbeharturik, esan dezagun, bai, gogoanbeharturik, Jainkoaz ez bada ere, Jainko-ezaz bederen". Bere ateismoa ez du "ez barea, ez pozkariorzkoa, ez alai. Ez dago, ez konforme, ez aserik; aldiz, bizi-



—bizi, zauria etengabe irekitzen da".

Ionesco paradogiakoago ageri zaigu oraino: "ateismoa, sarritan, hizkuntzaren oker-aditza da". "Erlijio hazierarik" ez duela hartu aitortzen du; balaz guztiz, bere bizitzan, zenbaitetan, ziurtasunik izan duela bere bizitzan esango du Jainkoaz Lehenengo Jainkoarekiko esperientzia 17 urtetan izan du. Gero, esperientzia horrek alde egin dio. Baina, berritortzen eginen zaio tarteka. 30 urte inguruko dela izanen du esperientziarik handiena. Hona zer dioten esperientzia horretaz: "Arras ere erlijioan bizitzen saiatu nintzen orduan; are: barau, otoi egiten, Jainkoaren ahalik hurbilen bizitzen... Uste dut, aski aurrera, aski gora joan nintzela. Baina ez aski, zeren halako batetan, lurtar munduarekiko, lurtar bizikerarekiko gogo bizia somatu bait nuen. Biziki sentitzen nuen, mundu hau utzi egiten nuela. Gero, gogo hura hain handia izan nuen, non hasieran dudu-mudan egon bait nintzen bata ala bestea aukeratu; azkenean munduarekiko gogo indartsuago izan zen. Orduan, benetan, eroriko baten inpresioa izan nuen ene baitan". Eta honela erasten du: "Ordudunik, esan dezaket, zerua alde batera utzi dudala, eta sentitzen dut, zeruak utzi egin nauela. Gero eta gehiagoan murgildu naiz bizitzan: bizitza lehia-tsuana, ase-ezinean. Zaharrago, eta bizi nahiago naiz, egundoko irrikia, zentzukoitasuna: ardoa, "bizitza", egiazko bizitzaren kontrakoa dena, literatur izena, hori dena. Eta somatzen dut, egundoko gogo horien sorreran, lehen kausa bezala, ene lehen errua dagoela, hots, ene eroriko pertsonala. Gogo horiek guztiak aseak izan nahi dute; egun batez galdu nuenaren ordezkari bezala dira; baina, halaz guztiz, badakit, ezin dute haren zuzorik bete... Badakit, kontrako bidea egin dudala, oso ongi dakit, baina ez dakit hori behar hainbatean. Abstrazio, adimen, buru mailan besterik ez dakit hori". Beste behin ere izanen du Jainko esperientzia; Buñuel-en "La Voie lactée"ren azkenean. Orduan, pozez beterik ikusi du bere burua, eta honela esaten du Ionesco-k: "Zorituraren banaiz ere, Jainkoa hartxeman ez badezaket ere, Jainkoa bada".


Badirudi horrenbestez, ateoak ere beren ateismoaz hain ziur ez direnez gero —esaten luke batek— fededunok lasai egoten ahal gara. Aldiz esanen nuke; zeren ateoak ukatzen dute Jainkoa, sarritan, fededunek adierazten duten Jainkoaren irudia bait da. Horrengatik, gure autoreak agindu digun liburua, fededunen aitortpenez osaturikoa aski interesgarria izanen dela derizkiot. Zer edo nor da fededunen Jainkoa?

KRISTO ZERUAN EZ, BAINA GURE EGUNOROKO BIZITZAKO GALILEAN

Beregaineko mailako ekintza katolikoa delako (gaztelaraz ACI) mugimendua Batzar Nagusia du ekainaren hasieran, Grenoble-n. "Biharko mundua" du aztergaitzat. Badakigu, mugimendu horrek, Frantziaren berealdiko jirabira egin duela azken bi urteotan. Maila horretako jendeak munduko aginpi-dea, maila guztietakoa, banatu egin behar dela esatea, ez da gutxi.

Igoera egunean, Mezan, Grenobleda gotzaiak, Gabriel Matagrinen zuzendu die sermoia. Hau esan die bereziki: "Ezin bereiz daiteke profano huts litzakeen Historia saindutik. Ez da Historia bat besterik: salbamen historia alegia. KRISTOREN BILA EZ DA ZERURA JO BEHAR, GURE EGUNOROKO BIZITZAKO GALILEARA BAIZIK. Ezin berdinka dezakezu, noski, Kristo edozelako politika erakunderekin. Halaz guztiz, ezin topatzen ahal duzue (Kristo) giza historiari at".

AMUNSA



ZERUKO ARGIA
SALTZEN DA:

ELGOIBAR
M. Gorostiza

EIBAR
Angera
Markina
Iriondo
Eguren
Gisasola
Barela
Alday
Aranburu
Estanko, 11
Ieas!
Simon
Amane
Urui
Urizar
Sigle XX

Kristorik Gabeko Kristautasuna?

Galdera-erantzun, batean, Frantsesei galdera au ere egin zaKie: ELIZ BERRIAK JASO BEAR AAL DIRA?

Garbia eta arrigarria izan da erantzuna: Baietz erantzun dute eundik larogeik.

Baiezko erantzun au delata, Eliz berriak jasotzen jarraitu bear ote Frantziaren zear? Ainbeste jende, Kristau bero ote Frantzi aldean?

Baiezko orren esan-naia obekiago konprenitzeko, guztiz interesgarri deritzat izen onekin Michel Brion-ek argitara eman duen liburuskari: La religion vecue des Francais: Frantsesek bizi duten erlijioa. Bere pentsakizun batzuk doazkizu gaurkoan.

BESTE MUND BATEN ZAI

Erlijio eta Elizari biziki lotuta Frantsesak? Ala dirudite aien erantzunak. Zer erlijiori ordea? Leen, Elizara joaten zanari, batez ere Igande eta Jai-egunetan, zertizan kristau. Eliz Artzaiek jendea Elizara eramaten saiatzen ziran. Orain, kristau-izatearen giarre eta muiña mundu zuzenago eta ederrago. bat egiten aalegintzea dela dirudi. Gaurko Artzaiek mundura bultz egiten die kristauei: Murgil ditezela lurreko arazoetan eta gutzia Kristoren ebanjelioz kutsatu eta eraberri dezatela.

Elizak jaso bear dirala dioten Frantsesentzat, Erlijioa, zer da? Elizkizunetara joatea? Gaur eguneko gizarte-kompromisotan sartzea? Bost axola zaei geienei leen bezalako edo oraingo itxurazkoa izateaz kristau erlijioa. Ez Igande ta Jai-egunetako Elizarako joan etorrietan eta ainbat gutiako gizarte kompromisotan, jartzen dute beren kristau erlijioa Frantsesek? Zertan bada?

Sentimentu utsa da, Frantses geienentzat, Kristau erlijioa, dio Brionek. Onoko auek osatzen dute sentimentu ori: Nere erriko eliz zaarrak, bere aldare, leio polit ta santuak, Eliz dorreak, ezkil kanpaiaren otsa, eliz barnean oi dan aparteko usaia, oroitzaipenak: bataioak, leen Jaunartzeak, ezkontzak, gure amamaren illeta ura...

Esperantza, beste mundu zoragarriagoren itxaropena ere bada erlijioa. Gu bizi geran baiño mundu obeagoaren esperantza. Mundu ontako txar-keria eta sufrimendu guzietatik askatuko gaituen zerbaiz. Gure biotzaren neurri gabeko zorion egarria aseko duen esperantza gozoa.

Mundu ontaroko ez dugu bear erlijiorik; gure eguneroko bizitza zuzentzeko ez da erlijioa; bizitzan zer jokabide artu bear dugun jakiteko, ez dugu baliatu bear erlijioaz; erlijioa lurreko zapalketak eta zuzengabekeriak kentzeko den zerbaiz ez da. Erlijio gure bizitzako aparteko zerbaiz da. Alde batetik lurreko bizitza, zure ogi bidea, gizarte bizitzako artuemanak. Bestetik erlijioa, bere sentimentuekin, geroko zorionaren ametsekin... Gure bizitzako garrantzutasun eta borroka ezitza aurtzaroa luzatu nai izango bagendu bezala.

LO BELARRA

Erlijioa, sentimentu, geroko amets baizik ez bada eta gaurko munduari eta bere arazo aundiei begiratzen ez badie, erlijio ori ERRIAREN LO BELARRA (Opio del pueblo) dela esango genduke Marxistekin. Sentimentuz leengoari begira eta gozoki geruari begira dagoan Erlijioak gaurkoa aaztu egiten du. Gaurko arazoetan ez murgiltzeko, lotan uzten duen zerbaiz litzake erlijioa.

KRISTO GABE

Elizak nai dituztela dioten Frantses geienentzat, beren erlijioan, zer toki dute Jainkoak eta Kristok? Ba aldute iñun tokirik ere? Jaungoikorik eta Kristorik gabeko erlijioa ez ote euren? Euren pentsakizunetan Jainko eta Kristo guztiz zokoratuak, ez ote? Sentimentu eta amets oietan zer leku dauka Kristoren mezuak? Nun dute bere salbazioa? Nun bere Ebanjelioa? Nun Kristoren Zorionak? Nun maitasun agindua? Kristorik gabeko erlijioaz ote daude?

Galdera izugarri auek egiten ditu Brionek: Frantses geienek bizi duten erlijio ori, zertarako da? Kristoren Berri ona zabaldu eta adierazteko, zerbaitetan balio ote dezake? Traba, oztopo eta eragozpen ez ote Ebanjelioaren zabalkunderako? Orlako erlijioa kentzea beindik obe ez ote gizonen biotzetan berriro Kristo eta Jainkoa artuak izan aal ditezten?

Eliz berriak paso bear diran ala ez galdetzea baiño interesgarriagoak iruditzen zaizkit beste galdera auek, dio Brionek.

AROSTEGITAR JOK

NORK KUKURRUKU!!!

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian

Donostiako Lizeoko Neskak, Kiroletan Txapeldun



Hona hemen Lizeoaren izena hain gora utzi duen taldea: bere kopa eta guzti.



Korrikalariak: Eli Mendizabal, Amaia Mitxelena, Begoña Amezaga, Mayi Enparanza, Bakarne Basurto.



Eli Mendizabal eta Lide Arana, Lizeoko kiroltegiari.

Donostiako Santo Tomás Lizeoko neska gaztetxo taldea ESKOLA-ARTEKO LEHIAKETAN txapeldun geratu da bai Gipuzkoa guztian eta bai Espainian ere. Hori dela-ta haiengana urbildu gara gure euskal irakurle gazteek zer eta nola gertatu den jakin dezaten. Hama bi nezkato ziren; poz pozik erantzun diete gure galderei.

—Euskaleritik Zenbat neska joan zintzen Madrida?

—Eibarko hamaika eta Lizeoko hamabi.

—Zer kursotakoak?

—Bakarne Basurto, seigarren basikakoa. Hirugarren urtekoak, Begoña Amezaga, Maite Saenz, Maite Agirre, Idoia Lekunberri, Aintzane Pagola, Mayo Enparanza. Laugarren urtekoak, Elixabete Mendizabal, Mainer Etxaide, Amaia Mitxelena, Arantxa Eguzkiza, Lide Arana.

—Madrida joan aurretik zer lehiaketa irabazi zenuen?

—Gipuzkoako eskola-artean lehenengo gelditu ginaran.

—Zein kirolatan hartu duzue parte?

—“Longitud”, “Altura”, “60 m. vallas”, “150 m.”, “60 m. lisos”, “300 m.”, “600 m.”, “4 x 60 relevos”, “Peso” eta “triathlon” delakoetan.

—Zer marka egin dituzue?

—“Longitud” delakoan, Begoña Amezagak 4,47 eta Maite Saenz-ek 3,93.

—“Altura”n, Mainer Etxaidek, 1,33 m. eta Begoña Amezagak 1,30 m.

—“60 m. vallas”en, Amaia Mitxelenak 10,8 eta Idoia Lekunberrik 11,3.

—“150 m.”en, Mayi Enparanzak 20,5 eta Mainer Etxaidek 21,9.

—“60 m. lisos”en, Maite Agirrek 9,1 eta Lide Aranak 9,6.

—“Peso”n, Arantxa Eguzkizak 7,48 eta Lide Aranak 6,12.

—“300 m. lisos”en, Bakarne Basurtok 46,5 eta Aintzane Pagolak 52,2.

—“600 m. lisos”en, Bakarne Basurtok 1-51-5 eta Aintzane Pagolak 2,01.

—“Triathlon”en, Elixabete Mendizabalek 706 puntu.

—“4 x 60 relevos”en, Maite Agirre, Amaia Mitxelena, Idoia Lekunberri eta Mayi Enparanzak, 33,2.

—Zer sari irabazi dituzue?

—Bi urrezko medalla (600 metroan Bakarne Basurtok eta saltoan Begoña Amezagak). Bi zillarrezko medalla (60 metros vallas-en Amaia Mitxelenak eta 150 metroan Mayo Enparanzak). Brontzezko medalla bat (Elixabete Mendizabal-ek Triathlon-en) Eta gainera, talde osoarentzat kopa bat.

—Entrenamentu edo saio asko egiten al dituzute?

—Astehenetan, ostegunetan eta igandetan Anoetan ibiltzen gara; asteazken eta ostiraletan, Lizeoan. Batzuk kursoaren hasieran hasi ginen baina beste batzuk Gipuzkoako txapelketa garairako bakarrik.

—Hemendik aurrera kirolatan jarraitzeko asmorik ote duzue?

—Hemendik aurrera entrenamentutan jarraituko dugu. Esperientzia honek asko erakutsi digu eta aurrera joatekotan, lan handia egin beharko dugu.

—Zer alderdi on aurkitzen diozue kirolatan saiatzeari?

—Lehenbizi, oso ongi pasatzen dugu entrenamentu-denbora, gustora ibiltzen gara. Gorputzarentzat ere osasungarria da eta gainera lehiaketaren batzuk irabazten baditugu asko pozten gara. Beste herritan jokatu behar dugunean ere joan-etorrietan oso pozik ibiltzen gara, eta leku asko ezagutzen ditugu.

—Zer kirola klase iruditzen zaizkizue onenak edo ederrenak edo gogozkoenak neskentzat?

—Guretzat atletismoa bera ere egokia da baina badira beste kirol asko, atseginak: eski, igari egitea, pelota, esku-baloia, tenis etab.

—Eta Lizeoko mutilak zer moduzko kirolariak dira? Zuek Hainakoak? Zuek baino hobekak?

—Badago jende onik baina ez da gehiegi saiatzen. Horregatik taldea onik ez dago. Bost edo sei mutil daude oso onak baina lehiaketarako gutxiegi dira.

—000—

Kirolaz gainera, aurtengo ikastaroa ere aurrera doa eta lanpean dabilen neskatil ahauek pakean garaia heldu zaig ulaster asko. Zorionak danei eta batez ere lagundu dieten maixuei.

Santo Tomas Lizeoa

Gure ikastetxe honen izena —askok eta askok esan dezakezute gure— arro ibillia da Madrid aldean, argazkian ikusten duzuten nezkato talde horri eskerrak. Irakurri besterik ez dago zenbat medalla ta trofeo irabazi duten NESKATXEN-ESKOLA-ARTEKO LEHIAKETAN. Zorionak!!!

Baiña ez dezala iñork pentsa kirolatan bakarrik lehiatzen direnik gure neskatxak. Madrid-en ere ez dute kirolatan bakarrik Lizeoaren ohorea gora jaso. Badakigu hotelean ere atentzioa eman dutela txukunak eta arretatsuak agertu direlako. Bejondaizuela, neskatxak!!! Nork ez du itxaropenez ikusten gurearen etorkizuna landare berri haueri eskerrak?

Ez dago ahazterik ere gure Enrikek eta Robertok egiten dituzten agiñahalak gure atleta-gai hauek preparatzen. Haien gidaritzari zor zaio orain iritxi den sartzatza. Baiña ez de hori bakarrik bi gizon hauen lanari zor zaiona. Kirol-lehiaketa hoietan eskura daitezken sariak baiño askoz balio handiagokoa da entrenamentu hoien bidez egin daiteken eta egiten duten eziketa lana. Horri zor zaio eskerra batez ere ta hori da eskertzekoa gizon haueri.

Kursoaren bukaeran badugu beste lehiaketa bat ere gure Lizeoan: IPUI ETA OLERKI LEHIAKETA, 6-garren batxillerkoek antolatua. Ogeitahamarren bat lan dira agertu direnak Lizeoan bertako eta kanpoko. Epailleen eskuetan daude orain lan hoiek eta ez dakigu zeintzuk izango diren sarituak; baiña jakin bezate dagoneko ere lanak bialti dituztenek, ekainaren 20-ean banatuko direla sariak, arratsaldean eta Lizeoan bertan, hortarako eratuko den jaialdi batean.

Eta bukatzeko, laister datozenez gero oporraldiak, ondo-ondo pasa ditzatela denek, ikasle ta irakasle.

ZAHARRAK

LIZEOTAR